



## 1- IKUSI AURRETIK



### 1.1 Badakizu...

  Gaur lehiaketei buruz arituko gara. Jarri talde txikitan eta komentatu puntu hauek:

- Zenbat telebista-lehiaketa ezagutzen dituzue?
- Zein da zuen gustukoena?
- Parte hartu duzue inoiz horrelako batean?
- Eta zuen lagunen batek?
- ...

## 2 - IKUSI BITARTEAN

### 2.1 Ezetz asmatu!



Ikusi elkarrizketa eta lagunekin adostu erantzunak.

Nondik eta zertarako deitu diote Josuri? .....

Zergatik ez du nahi Josuk Amaia aurkeztea? .....

### 2.2 Berriro!



Ikusi elkarrizketa berriro.

Zergatik ez dio ezer kontatu Amaiari? .....

Zenbat denbora falta da lehiaketarako? .....

Nolakoa da lehiaketa? .....

Zergatik dago urduri? .....



### 3 - IKUSI ONDOREN

#### 3.1 Zer nahi duzu?



Testuan **nahi izan** aditza agertu da zenbaitetan. Erreparatu esaldi hauei eta komentatu zer ikusten duzuen:

JOSU.— Bueno, Amaia, gaurkoan zer nahi duzu, kopiak ateratzea ala eskaneatzea? Maisu bihurtu naiz tramankulu hau erabiltzen.

AMAIA.— Eskaneatzea, motel, beti bezala.

AMAIA.— Astebetean prestatu nahi duzu?

JOSU.— Bueno, zuk lagunduko didazu, ezta?

AMAIA.— Nik? Nola nahi duzu laguntzea?



**Nahi izan** aditzarekin doan aditza infinitiboan jartzen da subjektua errepikatzen denean:  
*Zuk bihar **etorri** nahi duzu.*  
 Eta nominalizatuta subjektua desberdina denean:  
*Zuk bihar **etortzea** nahi duzu (ni).*

#### 3.2 Nork etorri nahi du?



Hori ikusita saia zaitezte hutsune hauek betetzen:

Amaiak nahi du Josuk dokumentu bat eskanea... , eta Josuk gauza bat konta... nahi dio Amaiari.

Josuk telebistako programa batean parte har... nahi du, eta nahi du Amaiak lagun..., baina ez du nahi Amaiak programan parte har...

#### 3.3 Orain gure txanda!



Orain guk hartuko dugu parte lehiaketa batean. Binaka jarrita, irakasleak letra bat esango du, eta zuek horrelako fitxa bat bete beharko duzue letra horrekin hasita. Esaterako:

**Letra: E**

Euskal izena	Objektua	Euskal Herriko herria	Aditza	Janari/edaria
<b>Eduarne</b>	<b>edalontzi</b>	<b>Elduaen</b>	<b>etorri</b>	<b>eztia</b>
-----	-----	-----	-----	-----

Bikote batek bukatzen duenean **bale!** esango du, eta kontaktzen hasiko gara.

Asmatutako hitz bakoitzeko, 10 puntu lortuko dira; hitza beste inork erabili badu, 5.

Hori egindakoan, irakasleak beste hitz bat botako du. Azkenean puntu gehien lortzen duen bikoteak irabaziko du.